



Prentsaurrekoa

- **Eguna:** astelehena, 2012ko maiatzak 14
- **Tokia:** Euskadiko Meatzaritzaren Museoa (Abanto-Zierbena)
- **Ordua:** 11:30
- **Deitu dute:** Enkarterrialde LGA
Somorrostroko lanbide-heziketa
Muskizko Udala
Abanto-Zierbenako Udala
- **Gaia:** “Alironaren bila” martxa.

Meatze-zonako mila bat arima zuri-gorrik Alironaren jatorria aldarrikatuko eta Athletic Club taldearekiko zaletasuna agerian utziko dute, martxa batean, Burdina-mendien Bide Berdean barrena, eta, halaber, zenbait ekintza eramango dituzte aurrera, Somorrostroko lanbide-heziketan.

- Ekitaldiko **azalpen-bideoa** egin dute, eta ia 100.000 bisita izan ditu Youtube-n.
<http://www.youtube.com/watch?v=tUV7Z-SxZIO>

ANTOLATZAILEAK

Enkarterrialde LGE

Muskizko Udala

Abanto-Zierbenako Udala

Somorostro – Muskiz lanbide-heziketa

LANKIDETZAN ARITU DIRA

ABANTO ZIERBENA MEATZARITZAREN MUSEOA

PETRONOR

ATHLETIC FUNDAZIOA

PANOCIO

COCA-COLA

MERCABILBAO

“JUEGO DE DAMAS” ANTZERKI TALDEA

DOLORES IBARRURI BHI

“Alironaren bila” martxa



Muskizko Lanbide Heziketako ikasleek, Enkarterrialde LGEren eta Muskizko eta Abanto-Zierbenako Udalen babesean, martxa bat egingo dute, **Burdina-mendien Bide Berdean** barrena, datorren maiatzaren 17an, ostegunean.

Ekimena Aliron hitzaren aldarrikapenetik sortu da, **Bizkaiko meatze-zonan**. Hitz horrek sustrai etimologiko sakonak ditu Enkarterrialde-Meatzaldean, eta baita gure Athletic Club maitean ere, duela mende bat baino gehiago.

Mila bat ikasle inguruk, Athletic kamiseta soinean, martxako partaide guztiei harrera egingo diete zentroan bertan, eta zenbait ekitaldi eramango dituzte aurrera.

Bertan egongo dira Jose Irigorri, “Juego de Damas” antzerki-taldea, emakumezkoen futbol-taldeko kideak, eta baita azken Kopako jokalariren bat ere (Isma Urtubi, esaterako).

Ekitaldien egitaraua

OSTEGUNA maiatzak 17

- 9:00etan La Aceña Interpretazio Zentrotik irteera, Burdina-mendien Bide Berdean barrena.
- 11:00etan Aldi berean: “3 ateko” futbito partidua, Ibarri BHI, Muskiz BHI eta Somorrostroko lanbide-heziketaren artean.
- 12:00etan Martxa Somorrostroko lanbide-heziketara helduko da.
Harrera eta ekitaldi instituzionala, Muskizko eta Abanto Zierbenako alkateekin, eta Enkartazioetako eta Somorrostroko Zentroko arduradunekin.
- 12:15ean “Juego de Damas” antzerki-taldeak Alironaren jatorria antzeztuko du.
- 12:30ean José Iragorriren agurra (Herri Irratia)- Athletic Clubeko jokalariei elkarrizketak eta talde zuri-gorriaren opari-zozketa.